

**III. ATALA****EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA****Lana eta Justizia Saila**

Ebazpena, 2019ko urtarrilaren 7koa Bizkaiko lan eta gizarte segurantzako ordezkariak emanda. Honen bitartez, eta Durangoko Udalak horrela eskatuta, Udal horretan 2018ko irailaren 14ko ebazpena aldatzen da, 2019 urterako Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko festen egitaraua eta orokorra ezartzen zuena.

Bizkaiko lan eta gizarte segurantzako ordezkariaren 2018ko irailaren 14ko Ebazpenean (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 183. zenbakian argitaratua, 2018 irailaren 21ean, ostirala) onartu egin zen 2019rako Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko festen egitaraua eta orokorra. Ebazpen horrek Durango udalerriko jaieguna urriaren 13an (San Fausto) ezartzen du.

2018ko abenduaren 27an, Durangoko Udalak Bizkaiko Lan Agintaritzari jakinarazten dio egindako akats materiala; beraz, urriaren 13a esan beharrean, urriaren 14a esan behar du. Udalak, bide batez, aldaketa onartzen duen ebazpen berri bat ematea eskatzen du, Durangoko 2019rako tokiko jaieguna urriaren 14an ezartzen duena.

Horren ondorioz, hau

ERABAKITZEN DUT:

Bizkaiko lan eta gizarte segurantzako ordezkariak emandako 2018ko irailaren 14ko ebazpena aldatzea, eta Durango udalerriko jaieguna, San Fausto eguna, 2019ko urriaren 14an ezartzea.

Bilbon, 2019ko urtarrilaren 7an.—Bizkaiko lurralde lan eta gizarte segurantzako ordezkaria, Josu Zubero Olaetxea